# BARREN

1 998ko ekainaren 19a
V. urtea - 241. Acia
E L G O I B A R K O   A S T E K A R I A

**ZENBAT BURU**
**M. Karmen Elorza**

**ERREPORTAIA**
**Historiaurrera bidaia**
***Leizarpe* Espeleologia Taldearen eskutik**

**UDALETXET1K**
**Udaltzaingoaren zerbitzuari buruzko inkesten baiorazioa**

**BERPr"`AN**
**Jesus Mugerza, *Vickyren Lagunak* taideko kidea**

**K1ROLA**
**Nahaste-Borraste lasterketaren 1 4. edizioa**

## Historiaurrera bidaia





“Gizatlia **cieln hp7alakna** **Knntlia Pz riA hQraii Alfint7PA_** **P7antrt7pn** hai7ik " n.qin itakn Tprnca

# BaRREN

Nafarroa enparantza, 2
**20870 ELGOIBAR**
G 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

| | |
|---|---|
| ARGITARATZAILEA | Elgoibarko Izarra |
| LAGUNTZAILEA | Elgoibarko Udala |
| ZUZENDARIA | Ainhoa Lodoso |
| KAZETARIAK | Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro |
| PUBLIZITATEA | Miren Moreno |
| MAKETATZAILEA | Mikel Cornejo |
| ADMINISTRAZIOA | Amaia Martin |
| GERENTZIA | Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste. |
| KOLABORATZAILEAK | Irati Agirreazaldegi, Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nievos Loiola, Ongarri Zne Kluba, Jullan Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, lban Urizar, Miren Vallejo. |
| BANAKETAARDURADUNA | Imanol Larrañaga |
| INPRIMATEGIA | Gertu Koop. E. |
| TIRADA | 4.000 ale |
| LEGE GORDAILUA | SS-1.038/92 |
| ISSN | 1133-021X |

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak dirttz lagundutako aldizkaria.*



fundazioa
fundacicin

411DAMOBAT

451GOITII
GRUPO DANOBAT


## Elgoibarko herriarl:

**eio** Ansola elgoibartarra, Francorenn garaian aldegindakoa, eta demokrazia ustel honen ondorioz herriratu ezin dena, frantziar txakurren eskutik deportazioa eta atxiloketa jasan ondoren, espainiar txakurrei entregatua izan da.

Peio, abertzale guztiontzako eredua da, aberriarekiko erakutsi duen konpromezu tnailarengatik.

Etxetik kanpo pasatu dituen 3() urteetan gauza eta jende asko aldatu egin dira. Baina etsaiak eta borrokak berberak izaten jarraitzen dute, gure helburua ere bera delarik.

Eta aurrekoa gutxi balitz, epaileak gartzelaratu egin du Peio, Carabanchelen hain zuzen. Honek, bere adineko gizon batek torturak jasateko aukera gehitzen duelarik. Horrez gain, beste hainbat presok pairatzen duten dispertsioa pairatuko du Peiok ere.

Larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:30ean Plazan hasiko den manifestaziora dei egiten dizuegu.

"Eusko Gudariak gara Euskadi askatzeko, gerturik daukagu odola bere alde emateko".

Peio askatu!!

Presoak kalera, amnistia osoa!!

**Amnistiaren Aldeko Batzordea**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZ1A eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.
Eskutitz guztiek ondo identitikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko.
Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia.**

## KEXAK

• **Herritar batzuek Leku-Eder goxodendaren inguruan zabor ugari pilatzen dela salatu nahi dute. "Dendaren ondoan zakarrontzi bat dago baina zakarrak bertara bota beharrean, jendeak lurrera botatzen ditu. Lo-tsagarria da nola egoten den inguru guztia".**

• **Emakume batek esan digu San Lorentzo auzoko parkea erabat abandonatuta dagoela.** "Pena ematen du parkea nola dagoen ikusteak. Belarra belauneraino dago hazita eta parke bat baino, oihana ematen du. **Ez al du inork belarra moztu eta ingurua apur bat txukuntzeko ardurarik?"**

• **Herritar batek baino gehiagok deitu digu joan den igandean ospatu zen Osasunkume jaiko ekitaldi gehienetan bizkuntza nagusia gaztelania izan zela salatzeko. "Ezin** dugu ulertu nola umeak nagusi diren ekitaldi batean ez zuten gehiago zaindu hizkuntzaren kontua. Aurkezpenak g az telaniaz egin ziren nagusiki, nahiz eta euskaraz zerbait entZUten zen itzultzaile baten ahotik. Honez gain, begiraleak gaztelaniaz zuzentzen zitzaizkien haurrei. **Udala izan zen ekitaldi honetan laguntzailea eta ez dugu ulertzen zergatik geratu zen euskara bigarren mallan".**

## TXALOA

• **Herriko lau neskatok Ikastolakoak txalotu nahi dituzte** joan den zapatuko **Guraso Eguna "oso ondo antolatu zutelako eta guk ederki pasatu genuelako".** Hurrengo egunean, domekan, izan zen **Osasunkume jaiaren antolatzaileak ere txalotu nahi dituzte, "oso jai politxa izan zalako".**

# ,/,7\ , ESAN?





**Bellen Elorza**

Udal Ongizate Saileko lehendakaria

Aurreko asteko BARRENen atera genuen notizia baten haritik tiratu dugu aste honetako atal hau osatzeko. Udal Ongizate Sailak ezinduren bat duten familientzako opor programa baten berri eman zuen. Gaia interesgarria iruditu zaigu eta gehiago jakin nahian **Ongizate Saileko lehendakaria den Belen Elorzari** deitu diogu.

**- Ezintasun fisikoak edo psikikoak dituztenentzako opor programak omen daude.** – Ezintasun fisikoren bat dutenentzako opor programa Donostiako Koordinazio Zentrotik gestionatzen da. Gutxitu fisikoentzat bakarrik da programa hau eta Benidormera edo Canarias-era bidaiak izaten dira. Gutxituak oporretara joateko aukera eskaintzen du eta behar izanez gero, 1aguntzai1e bat joan daiteke. Badakit elgoibartarrak joan izan direla oporretan programa honekin eta oso ondo dagoela entzun dut. Kontakturako telefonoa 943 46 93 86 da.

**- Badira opor programa gehiago. -** Bai. Ezintasun psikiko sakonak dituztenentzat, Uliazpi Fundazioak Egian, Hondarribin, Zegaman eta beste herri batzuetan, mota honetako gaixoentzako zentroak prestatuta ditu hilabeteko edo 15 eguneko oporrak pasa ditzaten. Hartara, familiakoek atseden hartzen dute. Alderantziz ere izaten da, hau da, zentro hauetan urte osoan ingresatuta dauden gaixoek hilabete pasatzen dute familiarekin euren etxeetan. Programa honetako tramiteak guk egiten ditugu eta lebenago aipatutako programarako orientazioa ere eskaintzen dugu.

**- Hirugarren adinekoentzako programarik ba al dago?** Bi daude eta guk gestionatzen ditugu. Batetik, "programa respiro" delakoa dago. Urte osoan funtzionatzen du eta etxean adineko pertsona bat duten familiei zuzendua dago. Gehienez, urtean hilabete batez edo bi hamabostaldiz, adineko pertsona San Lazarora edo beste zentro batera erarnaten da (lekua dagoenera) eta senitartekoek atseden hartzen dute. Badago beste programa bat, "Sendian" izenekoa, berria dena. Programa honek hilean behin asteburu bat Iibre hartzeko aukera eskaintzen dio familiari. Programa hau oso egokia da, urtean 12 asteburu libratzeko aukera eskain-tzen duelako. Hala ere, oraindik elgoibartar batek ere ez du programa honetan parte hartu. Agian, pentsatzeko era da aldatu behar dena.



*I. L1RTEURRENA*

*1997ko ekainaren 17an, 84 urte zituela hil zen*
*CARMEN BERGARETXE IZAGIRREren oroimenez*
*URTELIRRENEKO MEZA izango da Parrokian*
*larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:OOetan.*
*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*





# Historiaurrera bidaia

***1majinatu: baso erdian zaudete; janaririk gabe; Io egiteko aterperik gabe; surik gabe. Den-dena egin behar duzue, historiaurrean bizi zirenek egiten zuten modura. Gai izango aI zinatekete eguneroko bizitzak eskaintzen dizkigun "erosotasunak" alde batera laga eta, zerotik hasiz, bizimodu berri bati ekiteko? Hauxe Izan da, nolabait, Leizarpe Espeleologia Taldeak proposatu duena. Joan den maiatzaren 29, 30 eta 31n "Arkeologia esperimentala eta Iraunbizitza"ri buruzko ikastaroa antolatu zuten. Hiru egun pasa zituzten Saruben, Lastur eta Mendaro artean. Erreportaje honetan azalduko dugu elkartu ziren neska-mutilek ikasi eta bizi izan zutena.***

Leizarpe Espeleologia Taldeak urtebete eman du ikastaro berezi hau prestatzen. Evaristo Rodriguez, Leizarpeko kideak esan digunez, "taldeko guztiok, espeleologiaz gain beste hainbat gairekiko interesa ere izan dugu beti, besteak beste, historiaurrea eta arkeologiari buruz. Horrela, ikastaroak egin genituen eta gure huruak prest ikusi genituenean hasi ginen prestatzen irteera berri hau". Ikastaroan 19 lagun elkartu dira guztira, monitoreak barne. Hasiera hatean maiatz hasierarako antolatu zen ikastaroa baina euria eta ekaitz handia egin zuenez, bertan behera laga eta atzeratzea erabaki zuten. Maiatzaren 29, 30 eta 31n atera eta oraingoan bai, oraingoan lortu zituzten euren helburuak betetzea.

### Abentura

"Arkeologia eta Iraunbizitzari" buruzko ikastaro hau egitea abentura bat bizitzea da, nahi eta nahi ez. Antolatzaileek ikusarazi nahi zien partehartzaileei nola bizi ziren historiaurrean, nola landu inguruan ditugun belar eta harriak, nola egin daitekeen sua, nola eraiki dezakegun txabola bat belarrekin eta egurrekin. Partehartzaileak gustura abantatu ziren, abentura berri bat bizitzeko ilusioarekin. Izan ere, garai bateko gizakiak bere ingurua besterik ez zuen, natura, animaliak... Gaur egun, ordea, beste era batera ohitu gara, denetik daukagu eskura: ur beroa, argia, etxebizitza bat, janari mordoa... Hori guztia laga eta, hiru egunez besterik ez izan arren, ezer izango ez bagenu bezala bizitzea ez da edonork egingo lukeen zerbait.

### Txabolak

Naturak eskaintzen dituen gauzak erabiliz bizi gaitezkeela ikastea oinarrizkoa da. Lehenik eta behin txabola eraiki zuten, "belarrak eta adarrak erabili genituen. Amaitu genuenean demaseko euri zaparrada bota zuen eta zorionez barruan zegoena ez zen busti. Txabola ongi eraiki genuen seinale". Neolitiko garaiko txabola bat eraiki zuten, "hiru urte iraun ditzake erori gabe. Guk eramandako hurrondoaren egurra erabili genuen. Ez dugu nahi izaten inor ibiltzerik basoan egurra mozten, horregatik ahalegintzen gara hainbat gauza hemendik eramaten". Txabola bakoitzean hiru pertsonek egin zuten lo, "Afrikako masaiak egiten dituzten bezala eraiki genituen".

### Sagarrak eta laranjak

"Gosea ere pasa genuen", hala aitortu digu Evaristok. Izan ere, "historiaurrean bizi ziren bezala bizi nahi badugu, haiek jaten zuten antzekoa jan behar dugu. Sagarrak, laranajak, okela, arraina eta esnea eraman geni-

11



*Ezkerrean, eskuz egindako lanabesak. Eskuman ikus dezakegu nola ari diren eraikitzen Neolitiko garaiko txabola bat. Gaur egun, Afrikako Masaiek horrela eraikitzen dituzte.*



tuen eta, egia esan, jendeak hasieran batez ere, gosea pasa zuen baina esperientzia hori ere positiboa da". Hala ere, hirugarren egunerako gorputza ohitu egiten da, "eta asko eta asko, barazkijale egiten dira horrelako esperientzien ostean. Gehien-gehien fruta eskatzen zuten".

Etxetik lotarako zakua eta esterila, edalontzi bat eta labana bat bakarrik eraman zuen bakoitzak, "labana gauzak egiteko eta edalontzia jan eta edateko, ez tenedore ez bestelakorik". Batzuk, hasieran, pare bat makila bilatu eta haiekin jaten saiatu ziren, baina azkenerako guztiok jaten genuen eskuekin", Ez hori bakarrik, lehenengo egunean, "gehienek lurrean eseri autTetik non jartzen ziren begiratzen zuten. Bukaeran berdin zen non, nola, zikindu aia. ez...".

## Goizeko 4:00ak arte lanean

Goizeko 70:00etan esnatzen ziren eta gosaldu ostean, lanera. EP,L111 osoa pasatzen zuten lanean, gauza desberdinak nola egin ikasten, hitzaldiak entzuten... Goizeko 4:00ak arte jarduten zuten. Gainera, ETBko *Bertatik Bertara* saiokoak joan ziren grabazio bat egitera eta Evaristok kontatu digunez, "goiz oso bat moztu ziguten. Nahi eta nahi ez haien erritmora egin behar izan genuen txabola. Horregatik, gero ahal bezala probetxatu behar izan genituen orduak".

## Sua

Sukarria nola landu ikasi zuten eta, ondoren, taldekide bakoitzak gezi bat egin zuen sukarria, fibra bejetalak eta zuhaitzaren erretxina erabiliz. Hala ere, ikastaroan parte hartu zutenen harreta erakarri zuena sua nola egin izan zen, batez ere. "Bitxiena eta erakargarriena sua egitea zen. Horretarako bi makila erabiltzen genituen baina oso gutxik lortu zuten sua egitea". Gauean lanparak egin zituzten tuetanoa eta linoa erabiliz.

Ostiral arratsaldean atera eta domeka arratsaldean itzuli ziren. Evaristoren iritziz oso denhora gutxi da gauzak behar bezala antolatzeko, "izan ere, ohitzen hasi ginenerako bueltatu beharra geneukan". Horregatik, euren asmoa laupabost eguneko irteera egitea izango litzateke, "gaiak gehiago landu eta sakontzeko aukera izan genezan. Ez hori bakarrik, ahal balitz, kobazulo aproposa topatuko bagenu, bizpahiru eguneko irteera antolatuko genuke kobazuloan sartu eta historiaurre garaian, negu partean nola bizi ziren ikusteko". Hala ere, lehenengo esperientzia hau oso positiboa izan da, "gauza dexente ikasi genituen baina, batez ere, nik uste garrantzitsuena talde-lana behar-beharrezkoa dela Onturatzea izan zen. Giro oso ona sortu zen eta horrek beti laguntzen du era honetako gauzak antolatzerakoan".



## JUAN MANUEL TORRES eta ROSI LABRADOR: "Orduak pasa genituen suaren inguruan"

**- Leizarpeko bazkide zarete, ezta?**

- Bai, hamar urte inguru daramatzagu. Espeleologia kontuarekin hasi ginen eta erabat engantxatuta gaude. Kobazuloetan beste mundu bat dago, zoragarria!

**Eta nola animatu zineten ikastaro honetara?**

- Oso abenturazaleak gara eta horrelako gauzek beti erakarri izan gaituzte. Historiaurrea ere asko interesatzen zaigu eta aukera zegoenez, berehala animatu ginen.

**Zer moduz esperientzia?**

- Oso ondo, bene-benetan. Sua eta geziak egiten irakatsi ziguten, guk geuk eraikitako txabola batean egin genuen lo... Esperientzia berria izan zen. Gainera, taldean oso giro polita sortu zen, suaren inguruan berriketan konturatu gabe joaten zitzaizkigun orduak.

**- Bi egun izan dira. Luzatzeko prest?**

- Gogorra da, gu beste era batera gaude ohituta eta asko kostatuko litzaiguke. Hala ere, izugarri disfrutatu dugu naturak eskaintzen dituen gauza txikienekin, marrubien hostoekin infusioa egiten, lurrean lo egiten... Errepikatuko genuke, hori bai.

**- Gehiago baloratzen al duzue orain daukaguna?**

- Dudarik gabe. Lurrean lo egiten, mamorroez inguratuta zaudenean asko baloratzen dituzu zure ohea eta etxea.

# PFreko miuke glar Juln suetan?





**OIHANA APELLANIZ**
15 urte, ikaslea

Gustura ikastolako apuntiak eta musikakuak erreko nitxuzke baina, azkenian, ez naiz atrebitzen sutara botatzen, ze igual hurrengo urban bihar izaten diaz.

**JESUS VIEITES**
24 urte, espezialista

Soldaduzkako uniformea! Gustura botako nuke eta amon̄uz ikusi nola erretzen den, nahiz eta oraindik etxeko armairu batean dagoen gordeta.









**LEIRE CANUETO**
8 urte, ikaslea

Muriekak erreko nitxuzke, ze haundixa naiz muriekekin ibiltzeko. Danak daude gordeta armaixuan. Liburuak ez nitxuzke erreko, irakurtzia gustatzen jata eta.

**DOMINGO ACUNA**
65 urte, jubilatua

Idoloak, gaur egungo jendeak miresten dituen idolo eta irudi faltsu horiek guztiak. Jaungoikoa da gure ohorea merezi duen bakarra.

**JOSE ANTONIO GOMEZ**
31 urte, Brigadakoa

Gauza materialak beharrean drogak, terrorisnaoa, langabezia... horiek guztiak poltsa batean sartu eta sutara botako nituzke, bertan erre eta betirako desagertzeko.

**M. ROSA SANCHEZ**
47 urte, etxekoandrea

Urtean zehar pilatzen diren paper zahar eta egunkariez gain, beharbada, seme-alabek amaitu dituzten ikasturteen testu-liburuak. Izugarri okupatzen dute etxean!

b440.144 Cr. Cackp.
Obso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA



MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAX

Wolitaati staltta balsiena deatelts

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

Izeim ematePakoan %10911
behePapella gazte t optelarekill




# Zein dira euskaldunon hizkuntz eskubideak...



## UNIBERTS1TATEAN?

Kominitate Autonomoan, legez, Unibertsitatean ikasle orok irakaskuntza zein hizkuntzatan jaso nahi duen aukeratzeko eskubidea du, gero, praktikan, eskubide hori ziklo edota asignatura batzuen eskaintzara murrizten bada ere. Nafarroan eta Iparraidean ez.

**Azterketak euskaraz egin ditzaket, ahoz eta idatziz?**
Komunitate Autonomoan bai, ahozkoak nahiz idatzizkoak. Irakasleak euskaraz ez badaki, itzulpena Unibertsitatearen kontura joango litzateke.

## POLIZIAREKIN?

**Polizia erdaraz mintzatzen bazait, zer egin?**
Komunitate Autonomoan euskara erabiltzeko daukazun eskubideari helduz, poliziari euskaraz erantzun diezaiokezu.

**Dokumentazioa eman behar al diet erdaraz eskatzen badidate?**
Bai, kasu guztietan. Euskara ofiziala izateak ez baitzaitu gaztelania ezagutu beharretik babesten, gaztelania derrigor jakin behar baituzu.

**Udaltzaina, ertzaina nahiz beste poliziak, gauza bera?**
Lege aldetik, bai.



## OSASUNEAN?

**Nire medikuak ez daki euskaraz, alda dezaket?**
Euskal Herri osoan sendagilea aukeratzeko eskubidea dugu, beraz, euskaldunik baldin badago, alda daiteke.

**Eta herrian sendagile euskaldunik ez badago, eska dezaket euskaldun bat ekar dezaten?**
Ez, sendagilearekin dugun harremana pribatua delako, nahiz eta diru publikoarekin ordainduta egon. Halere, salaketa politikoa bidera dezakegu eta alkatearen ardura izango litzateke herrira mediku euskalduna ekartzea.

**Ospitalean gauza bera?**
Bai, legea ez dago zure alde. Hemen ere salaketa politikoa egin beharko litzateke. Halere, kasurik gehientsuenetan ez dizute kasurik egingo.

## • Goitek System, Toribio Etxeberria sarietarako hautagala

Hil honen 29an, Eibarko IX. Toribio Etxeberria Enpresa Sarien irabazleak zein diren ezagutzera emango da. Sorkuntza eta berrikuntza teknologikoen atalean hiru enpresa dira saria irabazteko aukera dutenak, tartean, Elgoibarko Goitek System. Lantegi honek plantako gestio integralerako sistema bat aurkeztu du. Sariaren zenbatekoa 3 milioi pta.koa da. Honez gain, Eibarko Tekniker Zentroan protektua garatzeko 5 milioi pta.ko dirulaguntza eta trofeoa ere ematen dira. 1996an Elgoibarko beste enpresa batek jaso zuen *sa*ria teknologia berrikuntzen arloan, Ingenieria Sanitaria Baskinsa enpresak, hain zuzen. Sari banaketa ekitaldia hilaren 29an izango da Jose Antonio Ardanza lehendakariaren eskutik.

# Ansola "Gatito" elgoibartar errefuxiatua Carabanchelen gartzellaratu dute

### Manifestazioa antolatu du Amnistiaren Aldeko Batzordeak

Jose Luis Ansola, 61 urteko elgoibartarra, Frantziatik kanporatu zuten hilaren 15ean bertako agintariek eta dagoeneko Madrileko Entzutegi Nazionaleko Javier Gomez de Liañoren aurrean deklaratu du. Asteartean, hilak 16, `Gatito'k ukatu egin zuen epailearen aurrean inoiz ETAko kidea izan denik. Ansola 1980an gertatu zen atentatu bateko eragilea eta laguntzailea izateagatik epaituko dute. Atentatua Bizkaiko Ea eta 1spaster herrien artean gertatu zen eta sei guardia zibil eta ETAko bi kide hil ziren.



Jose Luis Ansola `Gatito" edo 'Pello Zaharra' k konfinazio agindua hausteagatik ezarritako 5 hilabeteko gartzela zigorra bete berri zuen Frantziako Pau-ko espetxean. Aske geratu bezain pronto, frantziarrek espainar poliziaren esku utzi zuten Huescako Somport-eko mugara eramanez.

**Manifestazioa larunbatean**

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeko kideek "tratu txarrak jasan ditzakeen kezka" dutela adierazi digute. Izan ere, "azken boladan poliziaren eskuetatik pasatzen diren preso guztiek jasan dituzte torturak". Duela 30 urte Elgoibartik alde egin zuen elgoibartar honen atxiloketa salatzeko, Amnistiaren Aldeko Batzordeak manifestazioa antolatu du zapaturako, hilak 20. Manifestazioa arratsaldeko 19:30ean izango da Plaza Handian hasita.




## Omenaldi beroa Fernando Loiolari

Sanmigeldarren Egunean, Fernando Loiola Kilimon taldeko futbolari ohiak omenaldi beroa jaso zuen auzotarren aldetik. Goizean 'Murkaikupe" Eskuz banakako V. Pilota Txapelketaren finalak jokatu ziren. Unai Loiolak 22 eta 18 irabazi zion Xabier Loiolari. Bazkaltzeko elkartu ziren 138 Iagunen txaloen artean, Fernando Loiolak omenaldi beroa jaso zuen. Auzoko 8 mutikok aurreskua dantzatu zuten eta Ziardak Fernandori hainbat bertso eskaini zizkion. Azken honek, oso emozionaturik, Ziardari erantzuteko tenplea izan zuen.

UPCIEZ .10112



## Aupa Txuri-Urdinl

Musika Bandak Real Sociedad futbol taldearen Txuri-Urdin himnoaren bandarako bertsioa estreinakoz jo zuen domekan. Kasik ordubetez luzatu zen saioaren amaieran, Ricardo Sabadi6 himnoaren egilea eskenatokira igo eta garaikur bat jaso zuen alkatearen eskutik. Egileak berarekiko izandako begirunea bihotzez eskertu zion Elgoibarko herriari eta bereziki Musika Bandart, "Elgoibar baita horrelako errekonozimendua egiten didan Gipuzkoako lehenengo herria eta bakarra".

## 500 lagunetik gora Ikastolako Guraso Eguneko bazkarlan



Joan den zapatuan Ikastolak ospatutako Guraso Egunean haurrentzako eta gurasoentzako jolasak egin zituzten goizean. Eguerdian, 500 lagunetik gora elkartu ziren bazkaltzeko goiko jolastokietan. Ondoren, BBB 2 amaitu duten 22 neska-mutilei diploma eman zitzaien eta urte osoan taldeak entrenatzen ibili diren 27 lagunei opari bana eman zitzaien. Jaieguna dantza saio alaiarekin amaitu zutela azaldu digute.



## 80 domina banatu ziren Finalsta Egunean

Joan den dornekan Finalista Eguna ospatu zen Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta. Goizean goiz haurrentzako mendi irteera prestatuta zegoen Zuhaitz Astialdi Taldearen ardurapean. Baina, Osasunkume jaia zela-eta, haur bat bakarrik agertu zen. Hortaz, San Pedrora autoz igo eta handik mendi buelta eman zuten Kalamua aldera. Eguerdi partera, haur eta nagusi gehiago hasi ziren hurreratzen domina banaketa ekitaldirako. Morkaikokoek esan digutenez, "80 laguni eman zitzaien domina: 5() laguni IO, 15 eta 20 menditara tzeagatik; 20.000 metroko eta 40.000 metroko kategorian 30 laguni, eta, azkenik, 100 mendiren kategorian, pertsona bakar bati". Eguerdian, San Pedro jatetxean bazkaria izan zen eta esan digutenez, 40 bat herritar elkartu ziren,

## • Gelatxoren omenaldirako hazkari txartelak

Haritz Dantzaii taldearen 25. urteurrenaren ekitaldien barruan, uztailaren 5ean Pedro Sodupe 'Gelatxo'ri omenaldia egingo zaio Euskal Heniko Trikiti Elkartearekin elkarlanean. Egun horretan bazkari herrikoia izango da Olaizaga Kiroldegian eta bazkari txartelak eskuratzeko azken eguna hilaren 20a izango da, zapatua. Txartelak Sallobente Elkartean, Kaia tabernan, Pitxintxu dendan eta Santa Ana kaleko Eroskin lor daitezke 1.500 pta.n.

## • Mankomunitateak sari bat jaso du Madrilen

Deba Beheko Mankomunitateak, Ingurugiro eta Hondakinen Gestiorako Elkarte Teknikoaren (Ategrus) eskutik, 'Zilarrezko Erratza 1998' saria jaso du Madrilen. Estatu mailako sari honek teknologia garbiak bultzatzen eta ingurugiroa hobetzen laguntzen duten instituzioak saritzen ditu. Saria Mankomunitateko presidenteak, Luis Alberto Aranberrik jaso zuen Rita Barbera Valentziako alkatearen eskutik. Epairnahaiak kontuan izan ditu Mankomunitatearen kontzientziazio politika, hondakinen bilketa-selektiboa eta Elgoibarren egindako kale-garbiketa plana.

## • Ezinduentzako laguntzak

Udaleko Ongizate Sailak jakitera eman nahi du ekainaren 8ko Buletin Ofizialean argitara eman zirela ezintasunen bat duten pertsonei entaten zaizkien dirulaguntzen baldintzak. Herritarren batek dirulaguntza hauek jasotzeko interesik balu Udaleko Ongizate Sailera jo dezake edo 943 74 10 08 zenbakira deitu.

## • Enara Gorostiza, Mankomunftateko Komftd Lehiaketan saritua

Deba Beheko Manakomunitateak antolatutako Komiki Lehiaketan Enara Gorostiza elgoibartarrak hirugarren saria irabazi du. Ikastolako DBHko 1. mailako ikaslea den neska honek mendiko bizikleta bat jaso du sari modura. Enarak esan digunez, saritua izan den komikiaren gaia "Mankomunitateko maskota den Konti eta bere lagunak hiri batean egiten duten garbiketa lana" da.



mdith

Zure garbiketak 24 edo 48 ordutan PREST

GARBITEGIA
Alfonbrak garbitzen dira

Etxerako zerbitzua

Santa Ana, 20 ELGOIBAR Tel: 943 74 23 73
Azpilgoeta, 18 MENDARO Tel: 943 75 52 19

ESTU 1MAK
EUSKARA UDA
2, 3, 4 eta 5 orduko ikastaroak
Maila guztiak eta EGA irailerako
Estudianteak matrikula erdia
Udalaren dirulaguntzarekin

AEK EUSKALTEGIA

Aita Agirre plaza, 3
Tel: 943 74 13 32

# Kendu egin dituzte Udaltzaingearen zerbitzuari buruzko inkestak

## Urtebete pasa da programa aurkeztu zenetik eta inork ez du inkesta bat bera ere bete

*1997an Udaltzaingoan programa berri bat jarri zen martxan. Inkesta anonimo batzuen bidez, herritarrek Udaltzaingoari buruz duten iritzia jakinetrazteko aukera zuten. Jabier Oñederra sargentuaren proiektua ondo pentsatua zegoen eta helburua udaltzainen lana eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea zen. Urtebete pasa da eta herritarrek ez dute inkesta bat bera ere bete. Apirilean kendu zituzten inkesta orriak Udaltzaingoaren bulegotik.*

Udaltzaingoaren zerbitzua bide onetik doan ala ez jakiteko asmoz inkesta batzuk aurkeztu ziren orain dela urtebete. Herritarrek, udaltzainen lanari buruz duten iritzia azal zezaketen inkesta horietan era anonimo batez. Hartara, Udaltzaingoak bere lana bide onetik doan edo zein puntutan aldatu behar duen neurtu ahal izango lukete. Ideia ona zen baina ez du erantzunik izan elgoibartarren artean. Jabier Ofiedenarekin izan gara gai honen bueltan hitz egiteko eta berak azaldu digunez, "urtebete pasatu da eta inork ez ditu inkestak bete".



*Jabier Oñederra sargentuak udaltzainen zerbitzua hobetu nahi du.*

**Jarrera aldaketa**

Hala ere, programa berri hau martxan jartzeak izan du alde onik. Ofiederrak azaldu duenez, "udaltzainen artean nik uste dot eman dala jarrera aldaketa bat. Inkestak aurkeztu zian momentutik hona euren lanari eta zerbitzuari beste enfoke bat eman diote, hobea esango nuke". Gainera, hainbat herritarrek helarazi dioten iritziaren arabera, jarrera aldaketa honek izan du oihartzunik kaIean, "inkestak ez ditu inork bete baina iritziak ailegatu dira alde batetik edo bestetik, ahoz batez ere. Eskerrak eman eta udaltzainen jarrera goraipatu didate batzuek". Hala ere, sargentuak ahozko iritzi horiek guztiak idatziz iristea nahiko luke, "alde batetik konstantzia geratzeko eta bestetik, guk geuk horiek irakuni eta ausnarketa eginez bide beretik jarraitu behar dugun erabakitzeko".

**Kritikak**

Kritikak ere jaso dituzte. Hala ere "zuzenean ez digu inork ezer esan eta hori da txarrena. Gure lanari buruz kak jasotzea ere nahi dugu, kritika konstruktiboak. Baina zeharka ailegatzen direnak ez dira konstruktiboak, ez dakigulako zertan oinarritzen diren horrelakoak esateko eta, bestetik, ez dugulako modurik horiei erantzuteko. Hau da, zuzenean heltzen ez bazaizkigu iritziak, onak edo txarrak izan, ez dugu jakingo gure eginkizuna bide onetik daramagun edo zenbait gauzatan aldatu beharko genukeen. Gainera, zoritxarrez, iritzi txarrak, esamesak eta zeharka iristen zaizkigunak dira herrian gehien zabaltzen diren zurrumurruak eta badirudi egiten dugun guztia gaizki dagoela. Hori da kontua".

Jabier Ofiederrak Udaltzaingoko buru den heinean, euren eginkizunari buruz herritarrek duten iritzia jasotzea eskertuko luke eta horretara animatzen ditu elgoibartarrak, "guztion Iaguntzarekin lortuko baitugu kalitatezko zerbitzua eskaintzea. Hori da gure nahia".



*I. LIKItURRENA*

*1997ko ekainaren 23an, 27 urte zituela hil zen*
*AITOR LARREA ARRIOLAren oroimenez*
*URTEURRENEKO MEZA izango da Madalako elizan*
*larunbatean, hilak 20, arratsaldeko 19:30ean.*
*Joaten zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



Cordon,Villarchao, c.b.
DEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO 13ARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

-:=4• JOSE ,mafai
(Txema)
Mota guztietako pintura eta enpapelatuak.
Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu
San Bartoforne, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 929 44 23 14

/ritrrjP,P,rjr( r11¨PPF

3. adinari zuzenduriko gehigarria

35. zkia - 1998ko ekainaren 19a

# Josefa Etxeberria eta Rumayor:

**Josefa Etxebarriak 67 urte ditu eta Emilio Rumayor-ek 69. Gaztetan dirurik ez eta gero, ezkonberritan, lan eta lan, seme-alabak eta etxea aurrera ateratzeko. Denborarik ere ez, beraz. Hala ere, duela bost urte ingurutik hona, gaztetan bizi izan ez zutena bizitzeko aukera dute. Ez dira urruti joan, Benidorm eta Torrevieja aldera asko jota, baina batean eta bestean ondo baino hobeto pasatu eta bizitza aprobetxatzeak esan nahi duena ikasi dute.**

**- Egonaldi luzeak egiten dituzue Benidorm-en.**

- Normalean pare bat hilabeterako joaten gara. Gure adineko jendearentzat ez dago hura bezain leku aproposagorik. Giro izugarria egoten da. Egun osoa barre eta barre pasatzen dugu. Lagun tafde majoa elkartzen gara.

Hobeto! Gure gazte denboran lan eta lan, besterik ez zegoen. Eta gerora denborarik ez geneukan oporrik hartzeko. Zenbait urtefon Errioxa aldera joan izan ginen abuztuan baina hortik aurrera... Orain, ordea, goizean esnatu, gimnasia piska bat egin monitore batekin, pasiaratxoa, bazkaldu... Gauean dantzara joaten gara, ikusi izan ditugu trabestien ikuskizunak ere... Gaztetan egin ezin izan genuen guztia orain daukagu aukera bizitzeko.

**- Hotelera** ˉngo zarete, ez?

- Bai. Apartamentua alokatzea ez da askoz merkeago ateratzen eta, gainera, erosketak, bazkaria prestatu, garbiketa egin... Bizitzan zehar nahikoa lan egindakoak gara eta orain lasai egotea tokatzen zaigu.

**- Torreviejako gatzagan ere egon izan zarete.**

- Bai. Oso ona da osasunarentzat. Laku moduko bat dago, gatzez betea. Haren azpian buztin ilun-iluna dago eta buztin harekin gorputz osoa estali behar da lehenik. Gero, lehortzen denean, lakuko gatz-urarekin garbitu behar da buztina kendu arte. Azala zuri-zuri geratzen da, irinetan pasata bezala, eta leun-leuna. Hezurrentzat oso ona da.

- Gaztetuta **etortzen zarate,** beraz, zentzu cluztietan.

- Zentzu guztietan, hala da. Guretzat egun horiek etenik gabeko oporrak bezala dira. Hasteko, klima aldetik Benidorm-en oso giro ona dago, hemen ekainean egiten duen antzekoa. Eta hori asko eskertzen da. Eta bertan daukazun lasaitasunarekin, indarberritua itzultzen zara. Berriz ere Elgoibarren egoteko ilusioz eta gogoz. Ohitura bihurtu da guretzat urtean boladatxo bat han egitea eta ez daukagu aldatzeko asmorik, ahal dugun bitartean behintzat.



**- Ez al duzue atzerrira joateko tentaziorik izan**

- Egia esan, ez. Ez gara oso urruti ateratzeko zaleak. Gainera, lehenengo inguruak ezagutzea nahi genuke, kanpora ateratzeko ohitura daukagu eta ez ditugu gertu dauden txokoak ezagutzen. inguruan ere leku izugarri ederrak daude.

# GAZTARO <0 uROITZAPENA

## 1)(10iL oria ipini eta Internet-en ibili nahi dot"



**Belarreta baserrian jaio zen, duela 70 urte. Abdon Ansolari ilusioa egiten zion BARRENen agertzeak eta kontatzeko gauza asko dituela jakinik, zer hobe Abdonekin berriketalditxo bat izatea baino. Tronbosiak jota aulki batean ibiltzera behartuta dago. Hala ere, gizonezko honek meritu handia du. Izan ere, bere aurpegian une oro irribarrea marrazten da eta hitz egitea eta bere esperientziak azaltzea izugarri gustatzen zaion arren, garrantzitsuena besteei entzutea dela ikasi du azken urteotan.**

**- Eibarko Armerian ikasi omen zenuen, ezta?**

- Bai. Lehengusuek animau zien esanaz lagako ziela euren etxia nahi banaban. Baina, sartzeko azterketa bat in bihar zan eta ni Eibarko akademixa batera jun nitzan partikularrak hartzera. Armerixara jun eta ate baten atzetik entzun naban hipotenusa eta kateto hitzak ielengo aldiz. Irailian nakan azterketia eta aurreko hiru hilabetietan, sekula ez bezela ikasi naban, baina oso gustura, asko gustatzen jatan ikastia eta. Eta lortu naban Armerixan hastia.

**- Dena dela, ez omen zenituen amaitu ikasketak.**

- Ez. Garai txarra tokau jakun, greba mordo bat, irakaslerik ez... Denboria alperrik galtzen nabala eta lagatzeko asmua nakala esan niuen gurasuei. Hola, JARVE enpresan hasi nitzan lanian.

**- Geroago enpresario ere izan zinen.**

- Bai. Luciano Pascual, Ramon Etxaniz eta hirurok ALKARTU elkartia sortu genduan fresadorak itxeko. Beranduo, berriz, zazpi enpresa batu eta ACME sortu genduan. Oso urte onak izan zian. Baina, Franco hil zanian, grebak ziala eta bata eta bestia, bertan behera geratu zan dana. Orduan *Akoin* sortu genduan makina espezialak itxeko eta hau ondiok ere martxan dao, eta oso ondo gainera.

**- Bizitza osoa lanean, beraz, Abdon.**

- Lan asko indakua naiz, bai, danetik gainera: hasi makinan piezak itxen, baitxa pinturan ere, biajante ferixetan Europan zihar... Baina beti oso gustura. Oin ere, ahal banu, gustura ingo nuke lan baina bi edo hiru bider tronbosixak eman dia eta ezin dot, bestela...

**- Irakurtzea asko gustatzen zaizu, ez?**

- Asko, bai. Lehen, Eanian nauanian ez nakan denborarik ezertarako baina azken 8 urtietan irakurtzen eta radixua entzuten denbora asko pasatzen dot. Esaldi zoragarrixak daude hor zihar eta hoiek ikasi eta esaten dabanari kaso itxia asko gustatzen jata. Konturatu naiz, inportantiena entzutia dala, bestiei entzutia. Ni zoriontsua naiz, gitxikin konformatzen naiz eta.

**Liburu bat idaztea ere gustatuko litzaizuke.**

- Nik idaztia ez, kolaboratzia. Izugarrixa da mende baten zenbat aldaketa gertau dian bizitzan eta nere esperientzia kontauko nioke bateron bati berak idazteko. 90 urteko osaba bat ere badakat eta bixon artian kontu mordo bat dakagu edozeini esateko.

**- Ilusio txikiren bat ere ba omen daukazu. Kontaiguzu.**

Nahi nuke, mende berrixa hasi aurretik ordenadoria ipintzia etxian. Ez dakitx ibiltzen baina ikasiko nuke. Internet hori asmakizun oso ona dala beitxantzen jata, mundu guztiakin harremanetan zaudelako.

# Ba al duzu oporretan irteteko ohiturarik?

**Gaztetan sarri pentsatzen dugu jubilatu eta gero hainbat eta hainbat gauza egiteko denbora izango dugula. Gainera, bidaiak merkeagoak izaten dira eta behin baino gehiagotan ikusi izan dugu Benidorm aldean zeinen ongi pasatzen duten, eguzki epeletan egunez, eta, dantzaren erritmoa jarraituz, gauez. Bainuetxeetara joateko eskaintza bereziak ere izaten dira. Hala ere, ez pentsa guzti-guztiak erabakitzen dutenik kanpora ateratzea. Kale inkestan entzundakoaren arabera, askotxo dira herritik apenas ateratzen direnak.**



### Carlos Panizo

Zoritxarrez 20 urte gaixo egon eta gero emaztea hil egin zitzaidan. Aurretik, egun osoa lanean eta kanpora joateko aukerarik ez. Gero, gaixotasuna tarteko, ezin inora joan. Eta orain, gogorik ez. Euskal Herriko txokoetara gustura joaten naiz baina hemendik kanpo ez.



### Lola Endeiza

Ez, nahiz eta kuadrila guztia Benidorm-era juten dan. Lehen sasoi batian neu ere animatzen nitzan baina oin, gustura ibiltzen naiz hemen inguruan lasai-lasai, udan Donostiara 15 egun pasatzera edo... Badakizu, edadian ere aurrera guaz eta...



### Jose Ramon Ortuoste

Inora bez! Ez naiz ibiltzeko kapaz eta hor zihar juteko norberan buruakin konfiantzia euki bihar da! Ni sekula ez naiz kanpora jun, nahiz eta aukera euki doten Benidorm aldera juteko baina... Ni gustura hemen inguruan.



### Pakita Aranbarri

Ez, behin edo behin jungo nitzan kanpora baina ostantzian oso gitxi. Posibilidaderik ere ez dot euki eta gizonari ez jako gustatzen. Deban egoten gera udan baina han ere etxeko lanak neuk ein bihar izaten ditxut. Aukeran, Canariasera jungo nintzake gustura.



### Jose Zuazu

Aspaldixan ez naiz jun. Lehen askotan Benidorm-era eta Canariasera juten nintzan baina nahixo Canarias, konparaziorik ez dao. Hantxe hondartzara jun eta neska politxak ikusi! Oin urte asko dauzkat gainian inora juten ibiltzeko.

# 1.911110 11l1.'11
# terapia bezala

ertrand Russel filosofoak esan zuen umore ona dela munduan gehien behar den kualitate morala. Presa, beldurra, intolerantzia eta tristuraz gain bizitzak alai eta umoretsu egoteko gauza asko ere eskaintzen dituela zioen, eta horiei heldu behar diegula. Beste guztien gainetik, barreak sortzen duen sentsazioa benetan positiboa da. Urteetan aurrera egin ahala, gainera, konturatzen gara arte hau ikasteko adinik ez dagoela. Aitzitik, esperientziak eta heldutasunak erakusten digute gizaki lasai eta umoretsuak izaten, eta gero eta gehiago onartzen dugu ez dagoela ezti gozoagorik irribarrea baino. Izan ere, pozik eta alai egoteko motiboa izateak bizirik gaudela esan nahi du. Horretarako, beharrezkoa da haserratzen gaituzten gauzak ahalik eta gehien aldentzea eta zoriontsu jartzen gaituzten pertsonaz eta gauzez inguratzea. Ez hori bakarrik, gu geu pozik sentitzen bagara, irribarrea eskaintzen badiegu gertuko pertsonei, neurri berean, haiek ere alai egotera bultzatuko ditugu, azken batean, norbera nola sentitzen den, hala igortzen zaie besteei ere. Konfidantza izan behar da etorkizunean eta garbi eduki behar dugu momentu txarren ostean ere iritsiko dela barrea sorraraziko digun arrazoiren bat. Zahartzaroan berebiziko garrantzia hartzen du alaitasunak. Izan ere, zahartzean gure bizitzan zehar izan ditugun hainbat gauza galtzen goaz poliki-poliki, besteak beste, osasuna, lana, ahalmen ekonomikoa, harreman sozial eta familiartekoak, autonomia eta abar. Egoera berriaren aurrean izugarri laguntzen du gauzen alde ona ikusi eta baloratzen jakiteak eta, tokatzen denean, nor bere buruaz barre egiten jakiteak.

S. Freudek esaten zuenez, "umorearen bidez estimulo ez atseginak, mina edo pena a]da ditzakegu eta egoera horrek duen alde ona ikusi. Ondorio onak izango dituen sentsazioak izango balira bezala onartzeko gaitasuna eskain diezaguke umoreak".



PIREZ2TIA



## Tomasa Blanco
# Patatak frantses eran

**OSAGAIAK:** patata, gurina, esnea, gatza, ura eta olioa.

**PRESTAKETA**

"Lehenik eta behin patatak uretan egosi behar dira. Ondoren, patata-purea egiten da. Ez da pure oso arina izan behar, gorputza behar du eta. Purea gurinarekin eta esnearekin nahastu eta gero, orea gogortzen denean, zartagina olioz bete eta goi]ara batez patata-pure zatiak hartuz, frijitu egiten dira. Oso goxoa geratzen da, kanpotik frijituta, jatean krask egingo duelarik, eta barrutik biguna. Frijitu eta gero, bandeja batean ateratzen dira garbi-garbi jarrita. Gaztetan Frantziako etxe batean egin nuen lan eta gonbidatuak genituenean, patatak frantses erara prestatzen genituen beti lehenengo plater modura".

ERREZETIA

AKO OLABORATZAILEAK: Zaharren

*Azken hiru asteetan, herriko bazter guztiak Vickyren argazkiarekin estaliak ikusi ditugu, errifak daude salgai eta San Frantzisko iturrian txozna bat egon da bere alde. Vickyk iazko azaro aklera istripua izan zuen eta sendatzeko Arrasateko Aita Meni ospital pribatura joan behatra dauka. Horrek, hileko milioi bat pezeta inguruko kostua suposatzen du. Vickyren alabaren ikaskideen guraso talde bat elkartu eta 28 urteko emakume gazte honen alde ekintzak antolatzea erabaki zuten. Ana Zabaleta eta Jesus Mugerza dira talde horretako bi kide.*

# "Momentuz, bi hilabeterako dirua atera dugu Vickyrentzar

## JESUS MUGERZA ANA ZABALETA

**Istripu batek bizitza alda dezake erabat, ezta?**

- Hala da, bai. Vicky eta bere senarra lanean zeuden *Katea* izeneko enpresan, Bergaran. Soraluzen bigarren eskuko etxe bat erosi zuten eta gainontzeko familia guztiek bezala bizimodu normala izan nahi zuten euren alabarekin batera. Baina, iaz Vickyk istripua izan zuen. Koman egon zen eta atera zenean ez zuen jendea ezagutzen, ezin zuen hitz egin... Medikuek esaten zuten %90 batean hiltzeko arriskuan zegoela baina gaztea zenez, aurrera atera zen. Donostian egon da duela gutxi arte baina han beragatik gehiago ezin dutela egin eta etxera bueltan bidali dute. Une honetan bere egoera hobetzeko modu bakarra Arrasateko Aita Meni ospitalera joatea da.

**—Baina, bileko 800.000 pezetako kostua suposatzen omen du.**

- 800.000 pezeta hasiera batean zeren eta gero edozein analitika edo radiografia egin behar badiote, kostua igo egiten da. Batez beste ia milioi bat pezeta behar dira eta, noski, edonork ez dauka diru hori. Hala ere, gure ustez ez da garestia kontuan izanik handik jendea oso ondo ateratzen dela, ia mugitu eta berbarik egin ezinik zeuden asko atera dira oinez eta hitz egiten eta hori bizi-kalitatea da. Bere alde zerbait egin behar genuela erabaki genuen.

**—Bergaran antzeko zerbait gertatu zen mutiko gazte batekin, ez?**

- Bai, izan ere, haien esperientzian oinarritu ginen ideia hau aurrera ateratzeko. Eurak 10 milioi lortu zituzten eta mutilak 5 hilabete pasa eta gero Arrasaten, sinestezina da gaur egun nola dagoen ikustea. Izugarri mejoratu da.

**Nondik hasi zineten?**

Lehenik eta behin herriko dendariekin eta entitateekin egon ginen eta haien laguntzarekin errifak atera ditugu. Bi asteburutan txozna jarri dugu eta hortik ere atera da diru piska bat. Momentuz bi milioi pezeta ditugu. Eta Vicky astelehenean doa Arrasatera.

**- Jendeak ongi erantzun al du?**

- Oso ondo, dendariek, herritarrek,... txoznarako tortilak ekarri dikigute, Caritas-ek dirulaguntza eman du, Gaztetxean errifen tako osoa erosi ziguten eta joan den asteburuko kontzertuko sarrera bakoitzetik 100 pezeta guri eskaini zizkiguten... Eskerrak eman nahi dizkiegu denei. Dena dela, oraindik ez da amaitu eta zenbat eta laguntza gehiago izan, hobeto. Aurrezki kutxa eta banketxe guztietan kontu korronte zenbaki bat ireki dugu jendeak dirulaguntzak sar ditzan.

**—Eta jaialdiaren kontua, nola dago hori?**

- Uztailerako nahi dugu antolatzea. Printzipioz Gaztetxekoekin hitz egin dugu eta haiek prest azaldu dira kontzerturen bat antolatzeko, Baina beste zerbait ere nahi genuke egin, ez dakigu, saltsa jaialdiren bat edo... Jendeari eskertuko genioke ideiak emango balizkigu.



VIAJES
**BILERCI EXPZESS**

**DISNEYLAND** 3 gau
(4 egunetarako sarrera doan)
iHendaiatik trenez) . **45.950** pta.trk
(Miarritzetrk hegazkinez)... **56.700** pta.tik

**PARIS** 3 gau
(Hendaiatik trenez) **30.350** pta.tik
iMiarritzetik hegazkinezi . **50.300** pta.tik

**MARRAKECH** 8 gau
(Madriletik) ............ **37.500** pta.tik

**ESTAniSUL** 6 gau
(Bilbotik) ................. **55.200** pta.tik

**CAPADOCIA ETA ESTAMBUL**
3 egun bakoitzean
(Bilbotik) .................. **69.900** pta.tik

**TUROUIA IKUSGARRIA**
14 egun
(Bilbotrk) ................. **99.200** pta.tik

**KRUZEROA MEDITERRANEOAN**
(Bartzelonatik) . . . **92,900** pta.tik

**CARIBEA 2X1**
**Cuba** 7 gau
(Madriretik) .......... **150.600** pta.tik

**Santo Domingo** 7 gau
1Madriletik) .......... **174.600** pta.tik

**ETA GAINERA...**
**Zirkuito eta egonaldiak:**
Europa, Tunez, Egipto etab.

**Bidalak irletara:**
Balear irlak, Kanariar irlak, Madeira etab.

**Egonaldiak:**
Costa Brava, Dorada, Blanca, Azahar, Del Sol, De la Luz, Cantabria, Asturias, Galicia etab.
Hotef Coior, Bancotel, Ibercheque, Keytel Pass eta beste hainbat taloitegirekin bidaiatzeko erarik merkeena.

**Zatoz eta kontsultaiguzu!**

VIAJES
**BILBRO EXPQESS**
Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

# Jose Lejarreta Azpiazu

## (1888-1958)



• 1888ko irailaren 25ean jaio zen San Lorentzoko Mokoroa baserrian.

• 6 anai-arreba ziren, zaharrena bera. San Lorentzoko eskolan ibili zen, Silvestre Ansola maisuarekin.

• Oso gazterik era guztietako kiro]enganako zaletasuna erakutsi zuen. Bitxikeria bat: soldaduzkara j01111 hehar zuten mutilei, Joxek, bere etxean, idazten erakusten ziren eta esaten zutenez, oso trebea zen euskaraz zein gaztelaniaz idazten.

• Sarritan joaten zen erromerietara lagun artean, Irukurutzetakora batez ere.

• Mutil ausarta eta indartsua zenez, izen handia ]ortu zuen Euskal Herri osoan 100 eta 125 kiloko harri hiribilak altxatzen. Kamineroko frontoi zaharrean proba ugari egin zituen. Behin bakarrik egin zuen apustu, Jose Armuetaren aurka, hain zuzen ere.

• Donostian egin zuen soldaduzka, apaiz baten laguntzaile modura eta horregatik, aise pasatu zuen tramite hau. 1936ko gerran ere izan zen.

• Gizon trebea zen kirol-jokoak antolatzen. "Baserritar ilustradua" deitzen zioten askok. Zenbait kiroletan `korredore" aritzen zen, apustuez arduratzen zelarik. C. D. Elgoihar Elkarteko kidea ere izan zen.

• Jose ez zen sekula ezkondu. Gazteekin ibiltzea zuen gogoko eta parranda egitea ere lantzean hehin. Hamaika egun eder pasatakoa zen.

• `Jose Mokoroa' izenez zen ezaguna. Hizlaria zen, kirola, familia eta lagun artea maite zituena.

• Azken aldera, erreuma sufritu zuen. Jose, gizon sinpatiko hau, 1958ko otsailaren 28an hil zen, 70 urterekin.

Juanito Gorostiza

**ELGOIBARK0 IZARRA Kultur Elkartean**
**BARREN astekarirako**
**MAKETATZAILE bat behar da**

**ESKATZEN DA:** MACINTOSHerako **QuarkXPress** eta **Photoshop** programen ezagutza,

**Urtebeterako lan kontratua, berritzeko aukerarekirt.**

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)

**Interesabok blida0 kurrlailimbak atailaren 1 a baino lehen:**

**Elgoiharko Izarra K. E. Ithitarte 4, hehea 20870 ELGOIBAR**



Aste honetan Gemma Agirregomezkortak ekarritako argazki hau argitaratzea erabaki dugu. Pasatu berri den asteburuan Jesus Astigarraga `Txusko' zenaren omenezko moto lasterketa antolatu zen Elgoibarren eta Gemmak ere, argazki hau argitaratuz, omenaldi txiki bat eskaini nahi dio hain estimatua zen elgoibartar honi. Gemmak esan digunez, argazki hau, 1967an, Debako arrantza lehiaketan parte hartu zutenekoa da. Txuskorekin batera agertzen dena, Gemmaren anaia da, Jose Luis Agirregomezkorta "Txein". Argazkian ikus daitekeenez, Jose Luisek irabazi zuen txapelketa. Azken hau Markinan bizi da gaur egun.

TEXTIL
HOGAR
LAGUNAK
Zugandik gertuago
Orain San Roke 20/22an
Tel: 943 74 44 57

Belardenda
KEMEN
Estuasuna, antsietatea, depresioa, lo eza, tabakismoa, loditasuna, fobiak,... tratatzen laguntzen dugu. Zatoz, ez zara damutuko!
**NATUROPATA - Pragramazio** neurolinguistikaa **(Practiticcioner eta Masterra) - MASAJEA - REIKI - Osatze** naturalaren USUi sistema
San Bartolome 25 Tel: 943 74 40 31 ELGOIBAR

# Domella eguerdian, hilak •21,
# Nahaste Borraste lasterketaren 14. edizioa jokatuko da

## Amaieran bazkaria egongo da Kimetz Elkartean partehartzaile guztientzat

**Kimetz Elkarteak antolatuta, hilaren 21e an, domeka, eguerdiko 12:00etan hasiko da Nahaste-Borraste kirol proba herrikoiaren lehen lasterketa. Jaldna denez, hiru kirol ezberdin egin behar izaten dira: bizikleta, zakuarekin bizkarrean eta saltaka. Aurten antolatzaileen nahia gaztetxoen partaidetza bultzatzea da. Horregatik, 10 kiloko zakua eraman beharrean, 5 kilokoa bizkarreratu beharko dute. Ohi denez, bizikleta proba izango da lehendabizikoa: Kimetz Elkartetik irten eta Sigmako zubitik San Antolinera abiatuko dira. Karkizano, Madala, San Frantzisko eta Errosario kaleak zeharkatu ondoren, Plazara iritsi eta zakuari kolpe egingo diote. 5 kiloko zakuarekin San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar pasatu ondoren, saltaka honako ibilbide hau egingo dute: San Bartolome, P. M. Urruzuno, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handia. Maila honetan alebinetako lehen hiruek eta infantiletako lehen hiruek jasoko dute saria.**



*Gaztetxoen lasterketa Kimetz Elkartean hasiko da eta nagusiena Plaza Handian.*

### Lasterketa nagusia

**14 urtetik gorakoen lasterketa 12:30ak aldera hasiko da Plaza Handitik. Bizilcletaz, honako leku hauetatik pasatu**ko dira: Sigmako zubia, San Antolin, Karkizano, Madala, Ermuaranbide, San Lorentzoko sarrera, Ibarrenea, IMH, Erretxindi, Trenbide, Ezenarro, San Frantzisko, Errosario eta Plaza. Segidan, gizonezkoak 25 kiloko zakuarekin eta emakumezkoak I 0 kilokoarekin, San Bartolome eta Errosario kaleak pasatu ondoren, **Plazara iritsi eta saltaka** hasiko **dira. Azkenengo probaren ibilbidea Santa Ana, Trenbide, B. Ezenaño, S. Frantzisko eta Errosario kaleetan zehar izango da, helmuga Plazan kokatuko delarik. Lehenengo hirurek, lehen emakumeak, lehen beteranoak, lehen gazteak eta azken lasterkariak jaso dute saria.**

**Urtero bezala, lasterketa amaieran, bazkari herrikoia izango da Kimetz Elkartean lasterkari guztientzat. Opari gisa, Dakintak egindako marrazkia daraman kamiseta jasoko dute guztiek.**

## iTxusko Memoriala' 1. Enduro Txapelketa

# Gorka Garate 17 urteko gazteak irahazi zuen junior mailan

**Txusko Moto Klubak Jesus Astigarraga `Txusko' zenaren omenez antolatutako I. Enduro Txapelketa jokatu zen joan den zapatuan Albitxuriko zelaian. Euskadiko Txapelketarako puntuagarria zen txapelketa honetan 46 motorzalek hartu zuten parte, tartean 7 elgoibartarrek. Aipagarria da junior mailan Gorka Garatek, 17 urteko elgoibartarrak, lortutako lehenengo postua. Gazte honek urtebete bakarrik darama federatu moduan eta zapatuan bigarren aldiz hartu zuen parte txapelketa batean. Beraz, meritu handikoa da Gorkaren lehenengo postua. `Trofeo' delako mailan, Aitor Urain ondo ibili zen, bigarren postuan amaitu zuelarik. Kategoria honi •Junior B' ere esaten zaio, motorzalearen litzen-tziaren aitzinatasuna hartzen baita kontuan. `Trofeo' mailako txapelketan ibilbideko zatirik gogorrenak kendu egiten dira eta beraz, zertxobait errazagoa izaten da.**

**Txapelketa bi zatiz zegoen osatua. Lehendabizi, hiru itzuli eman behar ziren Albitxurin prestatutako ibilbidean. Ondoren, bi itzuli rally-an. 48 km.ko ibilbidea zen, Albitxuri, Amerikutz, Hemezabal, Larruskain, Amoate eta Elgoibar bitartean. Txapelketa benetan gogorra izan zen, lau bat orduz aritu haitziren menditik gora eta behera lokatz, harri eta ur-putzuen artean. Antolatzaileak oso pozik daude gauzak nola atera diren ikusita. "Urtebeteko bizitza bakarrik dauka klubak eta zerbait antolatzen dugun lehenengo aldia izan da. Gainera, azken urteotan Gipuzkoan ez da Enduro txapelketarik antolatu eta beraz, erronka handia izan da guretzat. Era berean, laguntzen aritu diren guztiei gure esketTik beroenak luzatu nahi dizkiegu".**



*Argazkian, txapelketan parte hartu zuten elgoibartarrak.*

### Elgoihartarren salikapena

Juniorrak:
1- **Gorka Garate (467 puntu)**
Seniorrak:
5- Manuel Alvarez (475 puntu)
*7*- **Ion Leiaristi (487 puntu)**
**10- Juan Ignacio Babarro (518 puntu)**
14- Aitor Osoro (583 puntu)
Trofeo edo junior **B:**
2- Aitor Urain (528 puntu)
8- **Luis Outumuro (749 puntu)**

# I gimnastak hartuko dute /anatuko gmnasia erritmikoko erakustaldian

### Tania Lamarca gimnasta olinpikoari omenaldia egingo zaio

Gipuzkoako 6 herriko gimnasia erritmikoko taldeek hartuko dute parte bihar, hilak 20, Kiroldegian izango den erakustaldian. Ibai Kirol Elkarteak antolatu du eta esan digutenez, 110 neskato elkartuko dira. Ekitaldi berezia izango da, `Atlanta 96'ko Joko Olinpikoetan urrezko domina eskuratu zuen Tania Lamarea gimnasta gasteiztarra bertan izango baita. Alkateak oroigarri bat emango dio gimnasta gazte honi. Ibaikoek esan digutenez, Tania Lamarcak ez daki omenalditxo hau prestatu diotenik, beraz, emoziorik ez da faltako.

Erakustaldian Elgoibarko Ibai Kirol Taldeak, Bergarako Ariznoa Taldeak, Eibarko Ipuruakoak, Ermuko Jator Taldeak, Soraluzekoak eta Donostiako Gimnasia Erritirtikoko Taldeak hartuko dute parte. Elgoibarko Ibai Kirol Elkarteko 15 neskato arituko dira.

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da saioa. Lehendabizi talde guztiek `konjuntoen' koreografiak eskainiko dituzte hairtbat aparatorekin eta esku libreekin. Elgoibartarrak, hiruko taldeetan banatuta, aroarekin, sokarekin, pilotarekin eta esku libreekin arituko dira. Ondoren banakako saioa eskainiko dute guztiek. Erakustaldia amaitzeko, klub guztietako gimnasia irakasleek koreografia berezi bat aurkeztuko dute. Esan digutenez, bi ordu inguru iraungo ditu emanaldiak.



*Tania Lamarca Atlantako Olinpiadan.*

# 55 taide arituko dira bihar, hilak 20u hasiko den Futbol 7 Txapelketan

### Aurten Deba bailara osoko taldeek hartuko dute parte

Flgoibarko eta Eibarko Udal Kirol Patronatuek antolatutako Futbol 7 Txapelketa bihar, hilak 20, hasiko da. Partiduak Mintxetan eta Eibarko Unbeko instalazioetan jokatuko dira. Larunbatetan goizeko 9:00etalik aurrera eta domeketan I 0:00etatik aurrera izango dira partiduak. Aipagarria da aurten Iehen aldiz Deba Beheko eta Garaiko taldeek hartuko dutela parte. Izan ere, Ermua, Eibar, Elgoibar Bergara, Soraluze eta Arrasateko 55 talde dira lehian arituko direnak. Txapelketa hilaren 20an hasi eta uztailaren 26an amaituko da eta guztira, 99 partidu jokatuko dira. Udal Kirol Patronatuko zuzendariaren iritziz, "txapelketa honek urtetik urtera gero eta harrera hobea izaten du. Iaz, esaterako, 36 taldek eman zuten izena. Hala ere, kontuan hartu behar da aurten bi herriren artean antolatu dugula txapelketa eta horregatik apuntatu direla 55 ekipo".




## • Eskubaloi monitore ikastaroa

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak antolatuta, uztailaren 6an eskubaloiko monitore ikastaroa hasiko da Elgoibarren. Bi edo hiru astez luzatuko da, beti ere izena ernaten duen jendearen arabera. Klaseak egunero izango dira Kiroldegian, arratsaldeko 18:30etik aurrera. Izena ernateko 943 74 44 15 zenbakira deitu

## • Ines Segura eta Ion Zubiaurre, Eibarko igeriketa txapelketan

Olaizaga Igeriketa Taldeko Ion Zubiaurre eta Ines Segurak joan den zapatuan Eibarko `San Juan Igeriketa Saria'n hartu zuten parte. Bi elgoibartar hauek ederki aritu ziren. Horrela, bada, Ion Zubiaurrek brontzezko domina Iortu zuen 100 metro libreetan. Ines Segura, berriz, Iaugarren postuan sailkatu zen distantzia berean.



## GENDA

**Futbol 7 Txapelketa,** Mintxetan

Larunbala, 20
9:00 Inkision - Invencibles.Txer
BAC - Txiri Strike
10:00 Lojantzi Pimpaos Ilbehera
SAS - A1K
11:00 Kama Sutra - Materias Peligrosas
Olaso F. C. - Kader
12:00 Bar Gure Toki - Bar Amistad
Bar Malape - Zorclunak
Igandea, **21**
**10:00 3W.Inter-Medio.com** Elec, Egaha
Spartak Vladikarkav - 1664 G. A.
11:00 Aizkolariak Delabuena '2'
R. Oso Takala Eul Monty
12:00 Guridi Faber - Malas Hierbas
Violet Kickers - Ez Dok

# RI 2L

## 10 puxtarri

Askotan, denok egiten dugun hanka sartzea gure inguruan ditugun gauzak behar den bezala ez baloratzea da. Eskerrak noizean behin norbaitlzerbait dagoela hori bera gogorarazten diguna. Bihar, larunbata, (larunbat askotan bezala), Gaztetxean kontzertua dago. Berriro ere, ez ohikoak diren taldeekin "oparituko" gaituzte. A **MINOR FOREST** eta **THE BLACK PROCESSION** Estatu Batuetatik datozkigun taldeak dira, biak benetan oso interesgarriak. Talde hauen bertuteak goraipatu eta erreferentziaz josi ordez, piskanaka, nahiago dugu Elgoibarko ekintza kulturaIekin erlazionatzea lortzen ari den kolektibo hau txalotzea, GAZTETXEA, alegia. Gazte hauek egiten ari diren lan guztiari esker, eta beti begirada egoista batetik, talde bikainak ikusteko aukera eman digute (Jeff Dahl, El Desva'n del macho, Pleasure fuckers,...). Biharkoak ez dira gutxiagorako. Orokorrean, zuzeneko ernanaldiak dira gu bioi interesatzen zaizkigunak, baina jende gehiagoren gustuak asetzeko aukera ematen dute. Zutabe honetatik eskerrak eta zorionak eman nahi dizkizuegu aurrera joko duzuen esperantzarekin. Ea horrela arrain gutxiago jaten hasten den.

**Iban Urizar eta Julen II**

# Herri institutuko ikasieek lMusu baten hilar antzezlana aurkeztuko dute hilaren 22an

### Ikasturtean zehar Antzerki Tailerrean egindako lanaren emaitza da

Herri Insitutuko DBHko 1. eta 2. mailako 19 ikaslek, Xabier Ansola **kirak**as I e aren ardurapean, `Musu baten bila' antzezlana taularatuko dute Herriko Antzokian. Hilaren 22an izango da emanaldia. Arratsaldeko 15:00etan ikastetxeetako ikasleentzako saio bat emango dute eta arratsaldeko 20:00etan beste saio bat, herritar guztientzat. Xabier Ansolak esan digunez, "antzerkia ikasgai modura lantzen da urtean zehar. Aurten 19 ikaslek aukeratu dute ikasgai hau eta urtean zehar hainbat gauza landu ditugu: teknikak, testuen azterketa etab.". Ikasturte amaieran, landutako testuen artetik, bat aukeratu eta honekin muntaia egiten dute. Xabik azaldu bezala, "elgoibartarrek egindako testuak aukeratzen saiatzen gara". Aurten, iaz bezala, Jose Martin Urrutiaren lan bat aukeratu dute, `Musu baten bila' izenekoa. Istorioak eskolako egun normal bat deskribatzen du. Gelara iristean, ikasle bakoitzak nahi duena eska dezakeela azaltzen die irakasleak. Ikasle batek, lehenengo musua eman nahi duela aitortzen du. Desio honen haritik, errealitatea eta ametsa tartekatuz, pertsonaia eta egoera xelebreekin egingo dute topo protagonistek.

Antzezlana apirilaren 30ean taularatu zuten estreinakoz Azkoitiko antzokian. Kritikak zer moduzkoak izan ziren galdetu diogu. "Eusko Jaurlaritzaren antzerki sarearen barruan gaude eta emanaldi bakoitzaren bukaeran, ikusleek fitxa moduko batzuk betetzen dituzte. Fitxa horietan puntuazio bat egoten da, eta gehienez 100 puntu lor daitezke. Guri 90 puntu eman ziguten, beraz,....".

Nahi duenak, hilaren 22an izango du gure berriko antzezle gazte hauen lana ikusteko aukera.



*Bi emanaldi eskainiko dituzte: bat ikasleentzat eta herritarrentzat bestea.*

# Hitzaldia

## luskararen historia beltia"

**J. A4. Torreattlai**

**Ekainak**

**asteartea**

**19:0Cletan**

**Kultur Etxean**




**1787, ANILLO, AZOTES**
Que no permita a los niños hablen dentro ni fuera de la eseuela otro idloma que el eastellano:, y entreguen el anillo para que vaya eireulando entre ellos en las faltas en las que ineurriere; y el nItinto que llevare tal anillo a la eseuela Ie aplique la pena del azote o palmada con suavidad... (*)

Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra K.

Laguntzaileak:
Etgoibarko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

}Clausula 2 del contrato del pueb10 de Eigoter con el maestro Gregorio de Landibu, el dia 18 de Marzo de 1787

# Herriko hiru ikastetxeakr Osasunkume jaiko 20 onenen artean

**Joan** den domekan ospatu zen Osasunkume Prebentzio Jaiaren lehiaketan, Elgoibarko hiru ikastetxeek 20 onenen artean egoteagatik aipamen berezia jaso zuten. Izan ere, Elkarte Autonornoko 300 zentrok hartzen dute parte lehiaketan eta Ikastola, Herri Eskola eta Pilar ikastetxekoak urtero sailkatzen dira 20 onenen artean. Argazkian diploma jaso zuten unea agertzen da. Ezken̄etik eskumara, Ikastolako 3A gelakoak, Herri Eskolako 4. mailakoak eta Pilar ikastetxeko 4. mailakoak.

Bestalde, Osasunkume Jaiaren antolatzailea den *Edex* Kolektiboak domekako jaian parte hartu zuten herritar eta elkarte guztiei eskerrak Iuzatu nahi dizkie, bereziki Kokoe, Ongarri Argazki Taldea, Musika Fundazioa eta Vicky-ren Lagunen Taldeari. Udal Ongizate Sailetik aditzera eman digutenez, *"Edex* Kolektibokoek partaidetzari buruz egin zuten prebisioa ez zen bete. 5.000 lagun etorriko zirela uste zuten baina Portugaletetik 100 bat lagun, Donostiako, Zomotzako eta Azpeitiko ikastetxeko zenbait ikasle eta guraso baino ez ziren etoni. Dena den, jendeak ederki pasatu zuen herrian zehar antolatu ziren gaztelu puzgarri, tailer, pailazo emanaldi eta bestelakoekin".






Udart ere

Ong BiOrri euskaratai

Ongi elorri Udal Euskallegiral

1001lko tidako ikastaroak

EGA altelligta preslalzoka LISISPO ekainaren 29tik uztailaren 24ra eta irailaren 7tik 23ra • 3 ordu goizez • Atariko proba Euskaltegian bertan • Prezioa: 13.000 pta. • lkasle eta langabetuentzako prezioa: 7.000 pta. • BISHAIDUNTIE Malla gorliale ekainaren 29tik uztailaren 24ra • 5 ordu goizez • Prezioa: 13.000 pta. • lkasle eta langabetuentzako prezioa: 7.000 pta. • BARNETEGIA ZERAINDI Gipuzloaka Udal Ellskalleglak uztailaren letik 15era, astebukaerak barne • Prezioa: 37.000 pta. • MATRIKIJIATIEREPEA:ekainaren letik 24ra.

UDAL EUSKALTEGIAK

DEBABE UDAL EUSKAITEGIA

ELGOIBAR: Nafarroa Enparantza, 2 • Tel.: 943-74 27 31
MYIBIR Txurruka enparantza, 1 • Tel.: 943-60 30 94
DEBA:lfarkalea, 12 • Tel.: 943-19 22 36

## 19 ostirala

**19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA**
Gaztetxean
**20:30 REIKI TEKNIKAri BURUZKO HITZALDIA**
Kultur Etxean
**22:15 ZINEA**
"Amistad"

## 20 larunbata

**16:00 GIMNASIA ERRITMIKOko ERAKUSTALDIA**
Kiroldegian
Antolatzailea:
lbai Kirol Elkartea
**19:30 MANIFESTAZIOA**
Irteera Plaza Handian
Antolatzailea: HB
**19:30-22:15 ZINEA**
"Amistad"
22:00 **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
"A minor forest" eta "The black heart procession"
Antolatzailea:
Gazte Asanblada

## 21 igandea

**9:30 ZUMAIAra TXANGOA**
**Irteera** Plaza Handitik
Antolatzailea: Herri Eskolako Guraso Elkartea
12:00 **NAHASTE-BORRASTE**
(Gaztetxoak)
Irteera Kimetz Elkartean
12:30 **NAHASTE-BORRASTE**
(Nagusiak)
Irteera Plaza Handian
Antolatzailea: Kimetz Elkartea
**18:30 GELATXOrekin DANTZALDIA**
Plaza Handian
19:30-22:15 **ZINEA**
"Amistad"

## 22 astelehena

15:00 **HERRI INSTITUTUKO IKASLEen ANTZERKI EMANALDIA**
(Ikasleentzako saioa)
Antzezlana:
"Musu baten bila"
Herriko Antzokian
**19:00 EGUR TALDEkoen ERAKUSKETA**
Kultur Etxean
Hilaren 30era arte
**20:00** HERRI **INSTITUTUKO IKASLEen ANTZERKI EMANALDIA**
(Herritarrentzat)
Antzezlana:
"Musu baten bila"
Herriko Antzokian
22:15 **ZINEA**
"Amistad"

## 23 asteartea

**19:00 HITZALDIA**
Hizlaria: Joan Mari Torrealdai
Gaia: "Euskararen Historia Beltza"
Kultur Etxean
Antolatzailea:
Elgoibarko Izarra
**22:00 "SUA, DANTZA eta KANTUA" IKUSKIZUNA**
**Udal** Txistularien, Itxaropena abesbatzaren eta Haritz Dantzari Taldearekin
Plaza Handian
Antolatzailea:
Haritz Dantzari Taldea

## 2G ostirala

Ostirala, 26
**18:30 ODOL ATERALDIA**
P. M. Urruzuno 8an
**19:00 GAZTE ASANBLADAren BILERA**
Gaztetxean
22:15 **ZINEA**
"Esfera"

| | |
|---|---|
| Mendaroko | 943 756100 |
| Ongizate zerbitzua | 943741008 |
| Udaletxea ........... | 943 741050 |
| Udaltzaingoa....... | 943 741394 |
| BESTELAKOAK | |
| Elgoibarko Izarra . | 943 741626 |
| Kiroldegia........... | 943 744415 |
| Kontsumo Bulegoa . | 943 743088 |
| Liburutegia......... | 943 743525 |
| Musika Eskola .. | 943 742145 |
| Mintxeta ........... | 943 744315 |
| Parrokia ............. | 943 740842 |
| Postetxea ........... | 943 741547 |
| Gaztetxea ........... | 943 743572 |

• •111 •1111 111 • R • ER •111 - • R ■ M• • - ■ •

11 NE A



Zuzendaria: Steven Spielberg.
Antzezleak: Morgan Freeman, Nigel Hawthorne, Anthony Hopkins.

### Amistad

1839 urtea. `La Amistad' izeneko itsasontzia esklabu afrikarrez betea doa ozeano Atlantikoan zehar. Gauez, ekaitz izugarri bati esker, esklabuak euren lokarrietatik askatzea lortzen dute eta borroka odoltsu baten ostean itsasuntziaren kontrola eskuratzen dute. Tripulazioko bi kide baino ez dira saThatu. Esklabuek ez dakite nola gidatu itsasontzia eta tripulazioko kideen laguntza beharko dute nonbaitera iritsi nahi badute.

• • • EZEZ • • • • • • • • • • • • • • • • • • • • •

## SAN JUANAK
### Antzolan

**Asteartea, 23**

14:30 Txapliguak eta kanpai jotzea.
19:30 Salbea.
20:00 San Juan zuhaitza jartzea trikitilariekin.
23:00 Dantzaldia *Combi* taldearekin.

**Asteazkena, 24**

6:00 Herriko etxeetako ateetan ohiko zuhaitz-adarrak jartzea.
11:00 San Juan Eguneko meza nagusia, koruarekin laguntzarekin.
12:00 Trikitilatiek alaitutako kalejira.
17:30 Pilota partiduak.
19:30 *Kutxo* eta *Jai* pailazoen saioa.
22:00 Dantzaldia *Combi* taldearekin.
Atsedenean, *Martzel* rnagoaren ekitaldia.

**Osteguna, 25**

15:00 Trikitilariek alaitutako bazkari berrikoia.
16:00 Urneentzako jolas-parkea.
19:00 Zezentxoak eta poniak.
21:30 Jaien bukaerako traka.

## • San Juan hozperako 'sua eta dantza' saioa

Datorren asteartean, hilak 23, Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurreneko ekitaldien haritik, San Juan bezperako 'Sua, dantza eta kantua" ikuskizuna egingo da Plaza Handian. Saioa gaueko 22:00etan hasiko da UdaI Txistulari Taldearen kalejirarekin. Ordu erdi beranduago, Itxaropena abesbatzak kontzertua eskainiko du eta amaitzeko, Haritz Dantzari Taldekoek dantza egingo dute Plaza Handiaren erdian kokatuko den San Juan suaren inguruan. Duela bi urte egin zen azken aldiz ikuskizun hau Kilornetroak 96 ospakizunen bueltan.

## • "Euskararen historia heltza"

Elgoibarko Izarrak antolatuta, datorren asteartean, hilak 23. Joan Mari Torrealdai idazleak euskararen historia beltzari buruz hitz egingo du argitarartu berri duen "El libro negro del enskara" Iiburuko pasarteak aipatuko dituelarik. Torrealdaik euskararen galera prozesua hobeto ulertzeko ezinbesteko kontakizunak eta pasarteak eskainiko ditu arratsaldeko 19:00etan hasiko den hitzaldian. Saioa Kultur Etxean izango da.

## • *A minor forest eta The black* heart *procession* Gaztetxean

Larunbatean, hilak 20, EEBBetatik datozen bi talde lzango dira Gaztetxean: A *minor forest* eta *The black heart procession.* Taldeok, inprobisazioa, esperimentazioa eta, kasu askotan, musika egiteko tresna berriak lantzen dituzte. Gazte Asanbladakoek esan digutenez, "aukera bikaina izan daiteke datozen urteetan egin daitekeen musikaren berri izateko". Kontzertua gaueko 22:OOetan izango da.

## • Zumaiara Ixangoa

Herri Eskolako Guraso Elkarteak Zumaia eta Elorriagara txangoa antolatu du domekarako, hilak 21. Irteera goizeko 9:30ean izango da Plaza Handian. Bazkaria eguerdiko 13:30ean, Elorriagako zelaian izango da eta euria egingo balu, berriz, Itziarko frontoian.

## • Bazkari herrikola *Holzeok* antolatuta

*Haizea* Emakume Taldeak aditzera eman nahi du dagoeneko izena eman daiteke-eta uztailaren 1ln Zubia jatetxean izango den bazkari herrikoian. Menuaren zenbatekoa 3.000 pta.koa da eta musika ere egongo da. Izena emateko deitu 943 74 29 65ra 19:00etatik 20:00etara bitartean.

## U11;14111111

**FARMAZIAK**

| | Egunez | Gauez |
|---|---|---|
| 20 | Etxeberria | Etxeberria (Errosario kalean) |
| 21 | Etxeberria | Etxeberria (Errosario kalean) |
| **22** | Escala | Escala |
| **23** | Bidasolo | Bidasolo |
| 24 | Etxeberria | Etxeberria (Sania Ana kafean) |
| **25** | Anduaga | Anduaga |
| 26 | Yudego | Yudego *(eguerdiko 2ak arte) |

**ESCALA:** Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 75 16 38
**ANDUAGA:** Mendarozabal, 1 Garagarza. Tel: 75 61 42

**OKINDEGIA**
21 igandea Zabaleta

---

I 1/,1t4



(1/
ia/9'eia L'af'"(

*1997ko ekainaren 23an hil zen*
*27 urte zituela.*

# I. URTEURRENA

*Lagunartean estimatua*
*izan zaitugu, Aitor*
*gure artean betiko biziko zara*
*alai eta jator*

*Zure lagunak*

# Helbide berria!











# HYUNDAY4 AIRE EGOKITUA OPARITUKO DIZU HIL AMAIERARA ARTE

3 urteko garantia — salmenta puntu

**Asfalto gainean kiskali aurretik, zatoz Hyundai etxeko edozein kontsezionariotara eta babes zaitez berotik. Orain, ekipamendu ederraz gain, Aire Egokitua doan izango duzu. Disfruta ezazu.**

**HYUrIDF11**
Gidatu marka on bat

Accent, Lantra gasolina, Coupe eta Sonata modeloentzako eskaintza. Stock-eko autoentzako eta promozio hasieratik hil honen amaierara artean matrikulatutako autoentzako eskamtza; ezm da beste eskaudza batzuekm bateratu. Hymndal Espalnlak eta eta bere kontsezionario sareak elkarrekin egindako promozioa.